

ESKOLA BIZIA, HERRI BIZIA

Txikien lan oparoa

Elkarrekin eta elkarlanean, oztopoak gaindituz proiektu bera eraikitzen doan komunitatea erakusten du *Eskola bizia, herri bizia* dokumentalak, ordubete pasatxoan. Gipuzkoako eskola txikiek 25 urte bete dituztela-eta, bertako ikasle, irakasle, guraso eta udal-ordezkarien bizipenak dotore jaso ditu Iñaki Alcalde zuzendariak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

ZIENTZIA GAIAK JORRATZEKO, taldekako proiektu bati ekin diote Berrobiko eskola txikian. Bateria, kableak eta gainerakoak eskuratu eta motor elektrikoa egin behar dute lehenik. Irakasleek beraiek ikasi dute bidean: “Ez dakigu oso ondo ibilbidea nolakoa izango den, baina batera joaten gara bide egiten, bakoitza bere ekarpenekin. Norbere abiapuntutik denek aurrera egi- tea da helburua, eta proiektu baten bidez eta adin aniztasuna duen gela batean, aukera handiagoa du bakoitzak bere mailan arrakasta lortzeko”. Ingeniaria den herriko guraso bat izan dute aholkulari irakasleek. “Maisu-maistrak asko inplikatzeko dira gure seme-alabekin, gu ez gara gutxiago izango”, dio dokumentalean. Donostiako Zientzia Museora ere egin dute bisita, galderez eta jakin-minez beteta. Eta azkenerako, jostailuen tamainako auto elektrikoak egitea lortu dute haurrek. Festa handi batean probatu dituzte, jolas artean.

Abaltzisketa, Larraul, Zerain, Itziar eta beste hainbat herritako eskolen esperientzia ere bildu du Alcaldek. Talde txiki eta anitzekin funtzionatzen dute guztiek ere, eta horrek egiten ditu hain aberasgarri. “Adin aniztasu-



Berrobiko eskolan, motor elektrikoa martxan jartzeko saiakeretan.

narekin nola jokatzeko dugun? Eki ez da 5 urteko haurra, Eki da, eta hura Maider, Galder, Edurne... Pertsonak dira eta ume bakoitzaren ezaugarri eta erritmora moldatzen gara, talde txikiek hori ahalbidetzen dutelako”, dio irakasle batek. Txikiek handien bidez ikasten dute, eta helduagoek ere, gazte- txoenei irakatsiz, hobeto barneratzen dituzte edukiak.

Guraso inplikatuak ere ematen die hitza filmak, herriak berak herriarentzat ereiten duen hazia baita eskola. “Herri handietan baino parte-hartze handiagoa eskatzen digu, baina oso inbertsio emankorra da, eta gainera komunitatea, herria bizi mantentzen du horrek”, dio gurasoetako batek. Areago, pedagogikoki aldarrikatzen den ikas-komunitatearen adibide dira eskola txikiak, sektore eta eremu ugariak lagunak hartzen dutelako parte haurraren heziketan: “Mundu osoa eskolan integratzea eskatzen du ikas-komunitateak, herri oso bat behar da haur bat hezteko, eta herri txikietan modu naturalean egin daiteke hori, herri osoa sar daiteke eskolan”.

Dena ez da arrosa kolorekoa, ordea. Zerbakiak eta gastua hizpide, Administrazioak trabak jartzen ditu maiz, eta ixteketan izan da eskola bat baino gehiago, ikasle kopuru gutxi- nekoea ez betetzeagatik. Etorkizuneko ikuspegiarekin jokatu behar dela diote protagonistek, gaurko inbertsioa biharko fruitua delako, kalitate oneko hezkuntza jasotzen duten haurrak hobeto moldatuko direlako ondorengo ikaske- tetan, eta handiagoa delako gizarteari egin die- zaioketen ekarpena. Bide horretan, batuta eta indartsu ageri dira Gipuzkoako 27 eskola txikiak, 800 familiak, 1.200 ikasleak eta 175 irakasleak, Iñaki Alcaldek filmatutako erretratu ederrean. ■



Être et avoir

Nicolas Philibert zuzendari frantziarraren *Être et avoir* dokumentala (2002) dakarkigu gogora Alcaleren lanak, ezinbestean. Film horrek ere, 4 urtetik 10era bitarteko haurrak ikasgela bakarrean hezten dituen eskola txikia du ardatz, Frantzian, Auverniako herrixka batean. Pazientzia handia duen Georges López irakasleak ikasketetan, baina batez ere bizitzan aurrera egiten lagunduko ditu umeak. Milioi eta erdi ikusle bildu zituen Europako zinema-aretoetan eta nazioarteko hamabost sari eman zizkieten. Biak ere, lan gomendagarriak dira ikaskuntza- irakaskuntza prozesu konplexuan eredu bila dabilzanentzat.